

URTEKO EGUALDIYAREN NASMENAK.

(ON RAMON ARTOLA EUSKAL IZKRIBATZALLEA-RI)

Denboraliak etortzen dira
Beren sasoyan poliliki,
Gure gorputzak igartzen diyo
Berrialăsen ederki,
Epel ta bero, mozpel ta otza
Guztiyak egiten daki,
Noiz segurutik egingo ditun
Oraindik iñork ezdaki.

Ekaitzak ere uste gabian
Zaizkigu guri etortzen,
Aizia berriz guchi edo asko
Beñere ezda faltatzen,
Danok gerade mundu onetan
Orren bearrez arkitzen,
Gure barrunak ori ezbadu
Iltzera gera biurtzen.

Euriya noiz nai abiyatzenda,
Ezdu ordu jakiñikan,
Baizikan degu guk igarritzen
Erortzen ikusirikan,
Nekazariyak poztutzen dira
Lurrik badu bearrikan,
Gizagajuak daukatelako
Irabaziya ortikan.

Nola uda-ran ala neguan
 Turmoyak dira aditzen,
 Chimistak digu aldez aurretik
 Sutunpa adierazten;
 Oiñ-azkarren bat iñoi edo bein
 Ere zaigu azaldutzen,
 Leku charrian arki ezkerotz
 Bildurra zaigu sartutzen.

Kazkarabarra erortzen zaigu
 Euriyen gisa goitikan,
 Ez egintere ez genduke guk
 Arkituko premirikan;
 Ezdu bazterrik orrek izaten
 Billatzen ezdubenikan,
 Kanpuan gauza achitzen badu
 Uztendu zatiturikan.

Izotza ere etortzen zaigu
 Onera bisitatzen,
 Iñorentzako ezda izaten
 Ona orren etorrera;
 Miñeri asko ekartzen digu
 Zenbait beartsun echera,
 Chit penosua izaten degu
 Egiten digun sarrera.

Pinpilinpaušak diruditela
 Elurra zaigu erortzen,
 Eche barrundik orlako gauzak
 Poliki dute ematen;
 Bañan kanpuan ūarpa ūarrakin
 Ezda atsegijñ izaten,
 Piñiyak ere antsiyaz dira
 Errira ingururatzen.

Gauba luzia izaten degu,
 Eguna berriz laburra,

Langilleari giro charrakin
 Sartutzen zayo bildurra;
 Alborakia irabazteko
 Ibilzenda chit makurra,
 Egun guztiyan gizagajuak
 Ondo neurritzendu lurra.

Pena ayek danak igarorikan
 Abiyatzenda epeltzen,
 Otzaren gisa sasoi onetan
 Beti dijua ugaritzen;
 Izaten dira egun batzubek
 Gaitubena gu moteltzen,
 Bañan aisago erremeijua
 Diyogu orri billatzen.

Egun sentiyan asten dirade
 Chori chikiyak kantari,
 Ongi etorri esan nayean
 Egualdi on epelari;
 Gogoz diyote beren pozakin
 Ekiten kantu lanari,
 Nekazariyak giro onakin
 Bezela bere layari.

Zelai ta soro, baratz ta chara
 Zumardegi ta mendiyak,
 Sasoi onetan ipintzen ditu
 Ederturik egualdiyak;
 Larru gorriyan lenago zeuden
 Arbolak eta sasiyak,
 Orri ederrez estalirikan
 Arkitzen dira guztiyak.

Eguzkiyaren irte-era da
 Guztizko miragarriya,
 Ori,da Jaunak bigaltzen digun
 Eguneroko argiya;

Ura gorderik, izarrarekin
 Azaltzenda illargiya,
 Bedeinkatuba izan dedilla
 Egillearen graziya.

FELIPE KASAL OTEGI.

MALKOZ.

(ARCHANGEL DONZELLA, AITA BEAKURTGARRIAREN LUR-EMATEAN)

Vocabis me, et ego respondebo tibi.
 (Job. XIV, 17)

Zauden leku orretan,
 Chit maisu maitea,
 Au da nik ipiñiko
 Nuken ob-iz-dea:¹
 Ara nor den, ar-otz-pe
 Ontan daguana:
 «Izenezko bizitza
 Osatu zuana.»

MIGEL A. IÑARRA-K

(1) Epitafio.